

Bezzeroaren Astea Andoainen

Igandera bitarte Salkin elkarteko dendetan sariak banatuko dituzte. Ostiralerako, berriz, Outlet Klean deitu dute / 5

AIURRI, 2019

Ondarearen jardunaldia Andoainen

Larramendi Bazkunak bideratuta, Andoaingo guduari buruzko ibilbide gidatua igande honetan. Izen-ematea Bastero Kulturgunean egin behar da / 16



Fanny Alonso moda diseinatzaileari elkarrizketa, Zinemaldiaren atarian / 12



Zinema, musika, antzerkia eta dantza saioak Andoainen eta Urnietan, asteburu honetan / 14-15



Ikasketa-buru eta zuzendariekin solasean, ikasturtearen hasieran / 3-5

Irailaren 21ean Alzheimerren munduko eguna

Zaintzen bazara. Alzheimerrek atzera pauso bat egiten du



Irailak 22, asteartea
"Remember me" filmaren proiektzioa

Bi ekitaldiak Bastero Kulturguneko Ekitaldi Aretoan. 18:00
Sarrera dohainik aretoa bete arte. Gonbidapenak aurrez har daitezke

Irailak 29, asteartea
"Nola aurreikusi eta tratatu daiteke Alzheimerren gaixotasuna?"

Gurutz Linazasoro doktorearen hitzaldia.
Neurologoa.



Andoaingo Udalak eta jubilatuen bi elkarteek antolatzen dute



ANDOAINO UDALA





Donostiako Alderdi Ederretik abiatu zen manifestazioa, astearte goizean. AIURRI

Hezkuntza mailako greba deialdia

“Aurrez aurreko hezkuntza itzulera segurua eta adostua” izenburupean greba orokorra deitu zuten, asteartean. Andoainen eta Urnietan deialdiak jarraipen ezberdina izan zuten

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Hezkuntza mailako sektorean dagoen talka irailaren 15ean gizarteratu zen. Sindikatu guztiek greba deialdiarekin bat egin zuten, Hezkuntza Sailari baliabideak eta itzulera segurua ziurtatzeko. Erantzuna ikastetxe batetik bestera aldatu egin zen. Urnietan grebak oso jarraipen ezberdina izan zuten. Egape ikastolan greba egin zuten, baina gutxiengo zerbitzuak eskaini zuten. Magale ikastetxeok, euren aldetik, normaltasun osoz jarraitzea erabaki zuten.

Aita Larramendi ikastolan greba erabatekoa izan zen, ho-

rixerabaki baitzuen ikastolako langilegoaren gehiengoak.

Ondarreta ikastetxean ez zen eskolarik egon haurrentzat, eta ikastolan bezalaxe gutxiengo zerbitzuak eskaini zituzten. Leizaran intitutuan langilegoaren heren batek bat egin zuen grebarekin, eta gainerakoak lanean aritu ziren.

La Salle Berrozpe ikastetxean normaltasun osoz aritu ziren lanean. Ohiko egun bat gehiago izan zen ikaslegoarentzat eta langilegoarentzat.

Azkenik, ESCIVI Zine eta Bideo Eskolan ere normaltasunez jardun zuten.

Eusko Jaurlaritzaren lehen balorazioa

Eguerdian, Jaurlaritzaren bozeramaile Bingen Zupiriak lehen balorazioa egin zuen. Adierazi zuenez, Eusko Jaurlaritzak ulertzen du hezkuntza-sektoreko familien eta profesionalen kezka. Era berean, Jaurlaritzak hezkuntza presentzialerako eskubidea bermatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko dituela adierazi zuen. Hala ere, aitortu zuen deigarria egiten zitzaiola Euskal Autonomia Erkidegoa izatea ikasturte hasieran greba egiten den erkidego batarra.

Manifestazioa Donostiako kaleetan



Hezkuntzari lotutako lanbide ezberdinak elkartu ziren manifestazioan. AIURRI

Mobilizazioak Grebarekin bat egin zuten langileek hiriburuetan elkarretaratzeko aukera izan zuten. Donostian, esaterako, goizean zehar manifestazioa egin zuten.



ELA, LAB, STEILAS, CCOO eta UGT sindikatuak egin zuten deialdia. AIURRI

Sindikatuak Ez da beti kasu bera izaten, eta oraingoan sindikatu guztiek bat egin zuten greba deialdiarekin. Herriz herri, grebaren jarraipena ezberdina izan zen.



Aitor Iriondo Aita Larramendi ikastolako zuzendaria, bere bulegoan. AIURRI

"Ikasleen erantzuna ona da, uste genuena baino hobea"

AITOR IRIONDO AITA LARRAMENDI IKASTOLAKO ZUZENDARIA

Udan lan eta lan aritu ondoren, ikasturteari hasiera emateko gogoz zeuden. Eta zuzendaria pozarren dago komunitate osoaren aldetik ikusi duen jarrerarekin

Mikel Arberas ANDOAIN

Zein aurreikuspen zenuten ikasturtearen hasierari begira?

Ekanean, pasa den kurtsoa bukatu genuenean, protokolo batzuk bidali zizkiguten Hezkuntza Sailetik. Aurreikuspen baikorra egin genuen orduan, ikastola maila guztietan irekitzeko aukera izango genuelako. Argi ikusi genuen, ikastola hiru hilabetez itxita egon ostean, beharrezkoa zela ikastetxea berrirekitzea, bai guretzako eta baita gizarteari begira ere.

Zein da lehen egun hautako sentsazioa?

Sentsazio ona dugu. Abuztuan eta irailean protokolo horiek diseinatzen aritu gara. Esaterako, irteerak, sarrerak, ikasgelak, jolas garaia, etab. Protokoloa aurrera eramateko lan handia egin behar izan da, gauza asko hartu behar baitira kontuan. Urduri geunden, baina ikasturtea hasi da eta, egia esan, langileen, familien eta ikasleen harrera oso ona izan da. Une oro, laguntzeko prestutasuna

azaldu dute, eta kurtsoa oso ondo hasi dugu. Horrela jarraitzea espero dugu.

Zein neurri hartu dituzue ez-ohiko egoerari aurre egiteko?

Haur eta Lehen Hezkuntzako gelak ezingo dira nahastu; De-

"ERRONKA HANDIA DA. GUZION EKARPENA BEHARREZKOA IZANGO DA"

rrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, mahaiak ezin dira nahastu. Neurri hori izan da nabarmenena edo handiena; horrek dakar sarreretan, irteeretan, patioetan, ikasgela artean eta jangelan lasai mugitu ahal izateko ibilbide eta ordutegi moduko bat sortu beharra. Beste aldaketa handietako bat maskaren erabilera izan da. Hezkuntza Sailak behartzen du Lehen Hezkuntzatik gorakoek maskarak erabili beharra. Neurri hauek antolakuntza izugarria eskatzen dute, eta ikastolak baliabide gehiago jarri behar izan ditu.

Nola eragin dezakete neurri berriek ikasleengan?

Lau egun daramatzagu lanean, orduan, ezin dugu balorazio orokor bat egin, baina kezkatuta gaude. Haurren aurpegiko keinuak ezinbestekoak dira komunikatzeko garaian, eta ez ditugu ikusiko. Ikasleak euren artean maskarekin egotea ere arraroa da. Gauzak horrela, neurri berriei begira lanketak egingo dira ikasgeletan, egoerari normaltasun bat emateko.

Ez-ohiko egoera honetan pertsona helduak eta irakasleak asko kezkatzen dira; baina ikasleek eta hurrek guztia beste modu batera ikusten dute, jarrerara ona eduki ohi dute. Oraingoz, pozik daude geletan eta jolasean. Euren erantzun ona da, uste genuena baino hobea.

Nola eragin dezakete neurri berriek ikasleengan?

Bai. Langileok kezkatuta gaude. Lau egun daramatzagu hurrekin lanean eta, oraingoz, egoera ona da, baina egin behar dugun ibilbidea luzea da. Ziurgabetasuna ere handia da; izan ere, ez dakigu egoera hau noiz arte luzatuko den. Aldaketa guzti hauek hezkuntza prozesuan eragina dute.

Ikasleengan oraingoz ez dugu nabaritu halako beldurra, baina familia batzuk kezkatuta daude egoera honek nola eragingo dien euren seme-alaben ikasketa prozesuan eta emozioetan.

Erronka oso handia izaten ari da ez-ohiko kurtso hau. Gu modu batera lan egitera ohituta gaude eta hilabete gutxitan, bat-batean, guztia aldatu da. Erronka handia da, argi dago guztion ekarpena behar-beharrezkoa izango dela.

Koronabirus kasuren bat edukiz gero, zein izango litzateke jarraitu beharreko protokoloa?

Momenturen batean ikasleren batek sintomak izango balitu, prestatuta dugun Covid-gelara eramango genuke. Gela hau une oro aireztatuta dago, Norbera Babesteko Ekipamenduaz (NBE) hornituta dago eta egoerari aurre egiteko beharrezko materialak ditu. Zuzendaria eta Covid arduraduna umearengana gerturatuko da eta familia-rekin kontaktuan jarri; familia berehala etorri eta anbulatorioarekin kontaktuan jarri beharko du. Anbulatorioak eskolari eman beharreko pausak jakinaraziko dizkio; haurrak positibo emango balu, gurekin hitz egitera gerturatuko lirateke ikaslearekin zer egin adosteko. Negatiboarekin prozesua antzerakoa izango litzateke.

Ikastetxeek babes nahikoa eduki dute Hezkuntza Sailaren aldetik?

Hezkuntza Sailak protokolo eta agindu guztiak bidali dizkigu, hau da, hartu beharreko neurriak zeintzuk izango diren jakinarazi digu, baina baliabideen gaian ikusten dugu hutsunea. Hezkuntza sistema osoak baliabide gehiago behar ditu: irakasle gehiago behar dira ikasgeletako ratioak jaisteko eta ordezkapenak bermatzeko, toki gehiago beharko genuke, garbitasuna bermatzeko materiala ere ezinbestekoa da; horrez gain, ahaztuta edukitzen duten beste puntu garrantzitsu bat euskara da. Ikasleak hilabeteak egon dira etxean sartuta familiarekin, eta batzuek ez dute kontakturik eduki euskararekin edo gutxiago erabili dute. Gai horri ere heldu egin behar zaio, eta horretarako hezkuntza sistemak baliabideak jarri behar ditu.

Nola ikusten dituzu ikasleak eta irakasleak etorkizunari begira?

Egoera zaila da. Epe laburrean egoera gogorra izango da, guztiok aldatu beharko dugulako lan egiteko modua. Ikasleak kontakturik gabe ikasgelan edukitzeak, metodologian aldaketa bat eskatzen du. Hortaz, lanean ari gara geure metodologiaren oinarria ez galtzeko. Ikasleen eta irakasleen aldetik ikusten ari naiz erronka gogoz ekin dutela. Nire ustez, erantzun ona bat emango dute ikasleen hezkuntza prozesuan eragin gutxien edukitzeko eta irakaslearen lan egiteko moduan aldaketa handiak ez egiteko.



Koro Berasategi eta Juan Luis Alkorta Egape ikastolako ikasketa-burua eta zuzendaria. AIURRI

"Aurrera goaz, baina batzuetan estresa handia da"

KORO BERASATEGI ETA JUAN LUIS ALKORTA IKASKETA-BURUA ETA ZUZENDARIA

Aiurrik Egape Ikastolako zuzendariarekin eta ikasketa buruarekin hitz egin du ikasturte berriari buruz hitz egin eta hartu dituzten neurriei buruz gehiago jakiteko

Mikel Arberas URNIETA

Zein aurreikuspen zenuten ikasturte hasierari begira?

Uztaila hasieran aurreikuspenak beste batzuk ziren, gure ustez baikorrak. Ekaina eta uztaila bitartean kontingentzia plana delakoa egin genuen Hezkuntza Sailetik bidalitako irizpideetan oinarrituta. Uztailan amaitu genuen, eta abuztu bukaerara arte ez genituen jarraibide berriak jaso. Ez ziren gauza asko aldatu, baina, esaterako, musukoen erabilera sei urterarte moldatu zu-

ten. Dardarka etortzen gara egunero, eguna nola igaroko dugun jakin gabe. Familia batzuk ditugu konfinatuta eta ikasleak oraindik ikastolan hasi gabe. Ezarri dizkiguten arauak eta kontingentzia plana betetzen saiatzen ari gara, baina guztia ez dago geure esku.

Zein da lehen egun hauetako sententzia?

Egunero protokoloa martxan jartzeko, ikasleak gelaz gela biltzen dira frontoian, lurrean margoturiko puntuetan, eta

gutxinaka sartzen dira ikasgelatar. Lehen egunean asko kostatu zitzaigun, baina, egun, segituan sartzen dira. Uste dugu haurrak azkar batean ohitzen direla egoerara; musukoekin aritzen dira jolasean, jolasor-

"GELAKOAK EZ DIREN MAILA BEREKOekin HARREMANAK SUSTATU BEHAR DIRELA USTE DUGU"

duetan leku batetik bestera lasterketa egoten dira, ondo eta pozik, jakinda egoera oso ezberdina dela, eta ez dela umeentzako batere erosoa. Ikasleak eta irakasleok ere kezkatuta gaude osasunarekin, izan ere, kasuak sortu daitezke eta sortuko dira. Aurre egin beharko diogu datorrenari.

Ez dakigu administrazioak nola erantzun duen; ziklo bat konfinatuz gero, zalantzan gaude ea irakasle gehiago bidaliko dizkiguten ordezkapenentarako.

Erronka handia izaten ari da ezohiko kurtso berriaren hasiera?
Erronka izugarria da. Egape aurrera goaz, baina memento batzuetan estresa handia da. Horrez gain, bakoitzak bere familiarreko arazoak ditu eta konfinamendua bizi zuten egoeraren arabera, orain zalantza edo beldurtuta agertzen dira ikasleak eta gurasoak. Zalantza guztiok ditugu. Agintzen dutenek badi-tuzte, pentsa eskoletako irakasle, ikasle eta gurasoek. Hala ere, uste dugu, Egape oso zorrotz ari garela jokatzeko, beraz, egoera apur bat bideratuko edo egonkortuko balitz gutxinaka neurriak malgutuko genituzke, gehienbat ikasleengatik.

Zein neurri hartu dituzue Egape ikastolan?

Gela guztiak bizikidetzat talde egonkorak dira. Orduan, taldeak egun guztia geletan egoten dira eta ez dira joaten espezialistengana, baizik eta hauek joaten dira ikasleengana. Jolasorduan oraindik ere gelaka banatzen dira, baina aurrekustean ari gara mailaka antolatzea, musukoa jarrita baitaude. Gelakoak ez diren maila berekoekin harremanak sustatu behar direla iruditzen zaigu, azken finean, jolasordua aire librean egiten baitira. Horrez gain, garbiketari izugarritzko garrantzia ematen diogu; une oro eskuak garbitu eta sartu bezain azkar higie-neurriak errepasatzen dituzte. Maiz egiten dugu segurtasun eta higie-neurrien lanketa.

Guraso, irakasle eta ikasle artean nabaritzen da egoerarekiko beldurra edo ziurgabetasuna?

Denetarik dago. Mota guztietako familiak eta irakasleak daude. Batzuk lasai daude, besteak, berriz, beldurtuta. Guraso batzuek seme-alabak ikastolara bidaltzen dituzte beste aukerarik ez dutelako edota ez daude ados sei urtetik gorako haurrek musukoa

jantzi behar izatearen neurriarekin, baina hori guztia ez dago geure esku. Horrelako kasuengatik korreoak jaso ditugu, eta batzuetan eskerrak eman dizkigute zintzo erantzuteagatik. Orokorrean, guran konfiantza dutela eta geuk ere familiengan eduki behar dugu. Oraingoz, familien erantzuna ona izan da.

Haurrak oso pozik etortzen dira ikastolara, eta jolasorduetan zoriontsu ikusten ditugu, zeren eta hilabeteak egon dira etxean sartuta lagunak eta gelakideak ikusi gabe. Esan beharra dago, haurrak aldatetara moldatzeko gaitasun handia dutela.

Koronabirus kasuren bat egongo balitz, zein protokolo jarraitu beharko litzateke?

Ikastolan Covid-19 arduraduna dugu eta badaukagu isolamendu gela bat kasuren bat gertatuko balitz. Arduradunak Osasun Saileko mediku, sendagile eta erizainaren telefono zenbakiak ditu. Orduan, haiekin harremanetan jarri eta nola jokatu adieraziko litzateke, hau da, erabakiak beraiek hartuko dituzte. Geure eginkizunak abisua pasatzea eta beraiek adierazitako neurriak betetzea izango litzateke.

Ikastetxeek babes nahikoa eduki dute Hezkuntza Sailaren aldetik?

Jaurilaritzak esandako gauza guztiak hedabideengatik jakin izan ditugu, eta, ondoren, dokumentuak iritsi zaizkigu. Dokumentu asko irakurtzeko eta betetzeko eskatu digute. Oso haserre gaude, iruditzen zaigu gauzak ez direla behar bezala egin. Horrekin batera, protokoloan neurriak zehatzak ezarri dira, baina beste asko gomendioak dira, eta gomendioak ardura geure gain botatzeko modua da. Azpimarratu nahiko genuke administrazioa eta gu bat ez gatzela "eskolen autonomia" duen esanahiarekin; beraientzat gauza bat da, eta guretzat beste bat.

Uste dugu ez dutela lasaitasuna helarazi eta gauza asko azken unean egin direla. Guri egokitzen zaigu familiei lasaitasuna transmititzea eta saiatzen ari gara, aldiz Jaurilaritzatik ez dugu hori jaso. Urduritasuna azkar zabalitzen da. Horrez gain, talde txikiagoak egingo zirela esan zuten, horrek ratioak jaistea dakar, baina ez dute ezer egin. Ratioak jaistea eskatzen dugu, 16-18 ikasleko gelak osatzeko. Dirua inbertitu behar denean ez dute laguntzarik ematen.

PROTAGONISTA

"Ohitura aldaketak erosketan eragina izan du"

MARIA JESUS ITURBE ANDOAINGO JUAN ITURBE ZAPATADENDA

Erredakzioa ANDOAIN
Zer moduz hasi duzue ikasturtea?

Eguraldia aldatu ez denez, guretzat denboraldia oraindik ez da aldatu. Dendara hurbiltzen dena beldurrez antzematen dugu, bizi dugun egoeragatik.

Zein ezberdintasun ikusten duzue?

Badago beldurra jota dabilen jendea. Dendara hurbiltzen dira beldur pixka batekin, erosketa egiteko orduan nola jokatu ez dakitelako. Ohikoan baino galdera gehiago egiten dituzte. Hala ere, jendea etortzen da.

Martxotik hona nola joan da negozioa, zuen kasuan?

Martxoan itxi genuen, maiatza bitarte. Maiatzean ireki genuen berriro, eta pixkanaka pixkanaka suspertuz joan da. Denbora pasa ahala, jendea errazago hasi da kalera ateratzen. Ez da denboraldi normala izan, baina bezeroa hurbildu dela esan genezake.



Maria Jesus Iturbe, dendaren kanpoaldean. AIURRI

Etorkizun hurbila nolako izango den aurreikusterik ba al duzu?

Ohitura asko aldatu egin ditugu, eta erosteko garaian horrek eragin handia izan du. Orain lehen baino gutxiago ateratzen gara kalera, eta ondorioz gauza batzuk gutxiago saltzen dira. **Takoi gutxiago, eta zapatila gehiago.**

Hori da! Pasieran edo kirola egiteko gehiago saltzen ari gara. Baina janzteko zapata gutxiago.

Bezeroaren Astea ospatzen ari zarete aste honetan. Zein da Salkinen aldartea horrelako kanpainen aurrean?


Animo guztiarekin prestatzen ditugu horrelako ekimenak. Jendearen aldetik, gainera, erantzuna ona izaten da. Outlet kalean martxan jarri zenetik urtero ateratzen ditugu produktuak dendaren kanpoaldera. Prezio onean produktu asko jarriko ditugu salgai. Eroslea animatu nahiko nuke. Parte har dezatela. Kanean egiten dugun ekimenarekin, gainera, herri giroa animatzen da.

Bezeroaren Astea Andoainean

- Irailak 14-20: Erosketa egiten dutenen artean sariak.
- Irailak 18: Outlet kalean. Eskaintza bereziak merkatalguneetan.

HAU ERE BADUGU!

Urnietan egindako aizkora Almodovarren film berrienean



Aurreko astean zuzendari ezagunak film berriaren afitxa argitaratu eman zuen. "The human voice" izeneko, Tilda Swinton da aktore nagusia. Argi ikusten denez, protagonistak eskuetan aizkora dauka. Antton Jauregi urnietarrak sareetan honako mezua jarri zuen: "Urnietako aizkora Almodovarren azken filman". Joxerramon Jauregi Anttonen anaiak egindakoa dela, urrutira joan gabe. Iaz, garai beretsua honetan Aiurriri eskainitako elkarrizketan adierazi zuenez, mundu mailako bezeroak zituen.

DATUA

Andoaingo edukiontzi marroiak

Aurretik inolako komunikaziorik eman gabe, herritar bat baino gehiago harrituta geratu zen edukiontzi marroiak ordezkatzeko ari zirela ikustean. Garai bateko edukiontziak ziren, egun osoan ireki daitezkeenak eta txip bidez irekitzeko gailurik gabekoa. Behin behinekoak ziren, gauza puntualerako. Izan ere, indarrean dauden edukiontzi marroi bakoitzari pedal bana ipini diote. Aldaketa horrekin edukiontzia erabilera erraztu nahi da. Edukiontzi marroiei hobekuntza hori egin ahal izateko tailerrera eraman behar ziren. Eta bitartean ordezkioak ipini zituzten.

GORA ETA BEHERA



Agerraldia euskaraz, euskara ederrean gainera

Allurralde kiroldegia eskaintzaren aurkezpenean, Oscar Mendo alderdi sozialistako zinegotziak xehetasunak euskaraz eskaini zituen. Txukun eskaini, gainera. Ohikoan, jendaurrean, erderaz aritu izan da baina oraingoan euskaraz aritu zen. Euskara ederrean aritu, gainera.



AIURRI

Haize hegoa, gau epela, igande gauekoa



Iraila aurrera doa, eta uda beteko sasoi igarotzen ari gara. Astelehenetik astearterako gauan, esaterako, Olazarren eta Plazaolan 28 eta 30 gradu arteko tenperatura egin zuela aditzera eman zuen @MeteoAndoain twitter erabiltzaileak, @urnietameteo-k adierazi zuenez, Urnietan 25-28 gradu artekoa izan zen.

POSTONTZIA

EUGENIO ARIZTIMUÑO AMAS ANDOAIN

Alfredo Amas Egibar (1918-1936)

1936ko abuztuaren lehen egunetan, Josefa Cruz Egibar Otaegik, bere seme-alabekin batera (Alfredo, hemezortzi urtekoa, eta Miguel, lau urtekoa) familiaren etxea utzi zuen Andoaingo Kale Berriko 14. zenbakian eta Donostiako Loiola kaleko etxebizitza batera joan zen. Senarra, Jose Andres Amas Carrera, Andoainen geratu zen, hamasei urteko Maria Teresa eta hamahiru urteko Margarita alabak bere ardurapean zituela. Josefa eta Andres amaren aldeko aitona-amonak nituen nik.

Biek, beren bizitzan zehar, XX. mendearen lehen laurdeneko Europako gertaerarik garrantzitsu eta garratzenak ezagutu eta bizi izan zituzten (Marokoko gerra, Primo de Riveraren diktadura, lehen mundu gerra, Errusiako Iraultza, bigarren Errepublika).

Andres Amas Iberduerok Bertxinen zuen indarretxeko langilea zen, eta Trentxikiko bidea erabiltzen zuen zentraleko lanera joateko. Errutina horrek erraztu egiten zuen trenbideko langileekin eta Plazaolako trena erabiltzen zuten herritar eta langileekin harremana, eta haien bidez izaten zuen Andresek trenbidea zeharkatzen zuen lurraldean gertatzen ari zenaren berri.

Armada frankista gero eta hurbilago zegoen Andoaindak; bien bitartean, Andoaingo Defentsa Batzordeak neurriak hartu zituen, horien helburua baitzen batetik boluntarioak eta ordezkoko gazteak errekrutatzea eta udalerrirako errepide-sarbideetan zaintza ezartzea eta, bestetik, altxamenduaren alde egin zezaketen herritarrak kontrolatzea. Armada frankistak, bestalde, aurrera egin eta Andoain okupatzearen ondorioz, ihes egin ez zuten gazteak behartuta eraman zitzakeen frontera... Ustegabea gertakari larri edo liskarren batean biktima izateko arriskua ere hor zegoen... Kontu horiek guztiek familian inor zuzenean jotzekotan, adinagatik, Alfredo Amas joko zuten, familiako alaba-semeen artean zaharrena bera.

Testuinguru horretan, Josefak eta Andresek erabaki zuten ama, bi semeekin batera, Donostiara joatea leku seguruago baten bila. Familiaren iritsiera Donostiara giro presazko eta larri baten erdian gertatu zen, fronterako gazteak mobilizatzeko eta, aldi berean, hiria defentsaren beharrezko antolaketarako ordu erabakigarriak baitziren haiek.

Hurrengo egunetan, Alfredo Amas Donostiako defentsa-

eraikuntzetan lan egiteko indarrez errekrutatu zuten. Alfredo izan zen, hain zuzen ere, egun haietan miliziek Donostiako Defentsa Batzordearen aginduetara errekrutatu zituzten horietako bat.

Alfredo Amas 1936ko irailaren 13an hil zen. Aste honetan laurogeita lau urte bete dira, hemezortzi urte zituela, ondoezik sentitu ondoren Ospitale Zibilera eraman eta bertan hil zenetik, Donostiako erregistro zibileko 882 zenbakidun ziurtagirian agertzen den legez. Biharamunean, gorpua Andoainera eraman eta udal-hilerrian lurperatu zuten, garai hartan Joaquin Bermejo parrokoak sinatutako heriotza-ziurtagirian hala agertzen baita argi eta garbi.

Memoria historikoa gertakarien ziurtasunean eta protagonistekiko eta euren oroimenarekiko begirunean oinarritzen da. Xabier Lasa Bergararen liburuan, *"Ahozko historia: oroimenean lokartutako ahotsa"* izenburukoan, Alfredo Amasen izena 7. atalean ("gudariak eta miliziano hilak frontean") txertatuta agertzen da. Euskarazko bertsioan, 288. orrialdean.

Azaldutako datuek erakusten dute Alfredo Amas ez zela gudari edo miliziano izan, baizik eta langile behartua, berezko ondoez bategatik hiltzeko zoritxarra izan zuena, ez frontean, baizik eta atzealdeko lanetan. Bestalde, egileak, idazlanaren 278. orrialdean, honako hau idatzi zuen: "Nikolas Agirre izan ezik, Belabietan hil baitzen, beste inor ezin izan zen Andoainen lurperatua izan (gudari eta milizianoei



Alfredo Amas Egibarren aipamena "Ahozko historia: oroimenean lokartutako ahotsa" liburuan. AJURRI

buruz ari da), eta ez zitzaien eman...". Beraz, datu hori egia bada, zentzuzkoa da pentsatzea Alfredo Amas ezin dela atal horretan sartu, dokumentatuta baitago Andoainen lurperatu zutela. Oroituzek ere zehaztasun falta edo akats hori bera egiten du Andoaingo frankismoaren biktimen omenez Miranda pasealekuan dagoen panelean Alfredo Amas sartu eta fronteko errepublikarren aldean desagertutako herritarren artean kokatzean, 2017ko abenduan argitaratutako Oroituzen

liburuxkaren hirugarren orrialdean halaxe baitator argitaratuta. Alfredo Amasen izena, egiari zor, zerrenda horietatik kanpo utzi beharko litzateke, ez haren demerituagatik, baizik eta ez zelako izan frankismoaren biktima zuzena, ez zelako frontean hil, ez zuten erail eta ez zen desagertu.

Ez dut egilearen lana zalantzan jarri nahi, ezta Oroituzen lana ere, baina uste dut badaukadala zehaztasun falta edo akats historiko hori zuzentzea eskatzeko eskubiderik.

Xabier Lasa Bergarak bere liburuko 35. orrialdean dioenez, "inoiz ez da berandu historiako akatsak konpontzeko, Historia berreskuratzeke". Ba hori, konpon ezazue akatsa, berreskura dezagun historia.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



DATUEK ERAKUSTEN DUTE EZ ZELA GUDARI EDO MILIZIANO IZAN, BAIZIK ETA LANGILE BEHARTUA

DOKUMENTATUTA DAGO ALFREDO AMAS ANDOAINEN LURPERATU ZUTELA

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

IPAR HAIZEA ANDOAIN

Andoaingo gaikako bilketa eta hobekuntzarako proposamenak

Azken hilabeteetan eman den gaikako bilketaren beherakadagatik kezkatuta gaude. Ez da arraroa ikustea zabor poltsak edukiontzien kanpoan eta zenbait kasutan edukiontzi grisera zabor poltsa erraldoiak botatzen dira. Argi dago bertan dagoen guztia ez dela errefusa eta sailkatu daitekeela.

Tolosaldeko Mankomunitateak publiko egindako azken datuetan %66 ingurutik %62ra jaitsi da gaikako bilketa. Lehen datuan egonkortua zeraman Andoainek hilabete luzeetan zehar (martxoko datuak salbuetsita, inoizko onenak, non %68ko gaikako bilketa gainditu genuen), eta orain beherakada eman da. Hori guztia ikusita, eta aurretik zegoen aipatutako datuen egonkortasuna hautsi

eta gaikako bilketan aurrerapausoak emateko, "Andoaingo Ituna" berregokitu dugu, eguneratuz eta zenbait neurri batuz: auzokonpostaren hobariaren igoera (egun, lan gehiago behar eta tratamendu/bilketa gastuak aurrezten badira ere, hobari baxuena du, %15), betiere autokonpostaren pare edota behintzat edukiontzi marroien erabiltzaileen gaitetik kokatuz. Honek ez du esan nahi beste hobariak (edukiontzi marroia, autokonposta) igo edo mantendu behar ez direnik, soilik esfortzu gehigarria saritzea eskatzen da. Hurrengo ordenantza fiskaletan txertatu beharko litzatekeela deritzogu.

Bestalde, behingoz organikoa jasotzeko poltsa konpostagarrien banaketa

errazteko bi makinak martxan jartzea; merkataritza eta ostalaritzako establezimenduen atarian jasotzen diren frakzioak gehitu (errefusa...) eta beste batzuen bilketa hobetu (kartoi komertziala), betiere Tolosaldeko Mankomunitatea zein merkataritza-ostalariekin elkarlanean.

Beste hainbat proposamen: Herriguneko ibaiertzetan hesi metalikoak jartzea aztertzea, plastikoak erortzea zailtzeko (Gipuzkoako zenbait udalerritan egin moduan); landa eremuko zenbait edukiontzi gune osatu; zakarrontzi selektibo gehiago ezarri; fiskalitate justu baterako hondakinen sortzez besteko ordainketa ezartzea aztertu; puntu beltzak (edukiontzi guneak) identifikatu eta neurri



Organikoaren eta errefusaren edukiontziak Olagain auzoan. AIURRI

zuzentzaileak hartu; %70eko gaikako bilketa gainditzea 2021ean zehar; birziklapen tailerrak antolatu; pedalak ezarri edukiontzi marroietan ere irisgarritasuna hobetzeko...

Horretarako, denon elkarlana beharrezkoa izango da eta badakigu denon

esfortzuarekin lortu dezakegula. Halaber, irailaren 10ean gobernu taldea osatzen duten alderdiak irailean zehar egiteko bilera batera deitzeko mezua bidali genien hau guztia aztertzeke. Aurrerago gainerako alderdiekin ere biltzeko asmoa dugu. Jarrai dezagun hobetzen!

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema. Andoaingen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubxuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idezkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urmietia).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: **ALIATUAK:** **TOKIKOM**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA: **Gipuzkoako Foru Aldundia**
Hikuntza Berlindustamerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: **BABESLEAK:** **Aiurriko harpidedunak**
ezinbestekoak dira.



Andoingo Guduaren antzezpenaren amaiera Goikoplazan, 2013ko udazkenean. AIURRI

Lekukotzak liburuxkaren aurrerapena

Larramendi Bazkunak bere Lekukotzak argitalpenaren 11. zenbakia emango du argitara. Andoingo guduari buruzkoa da eta bertan azaltzen dira 1837ko irailaren 8tik 16ra bitartean Andoainen eta aldirietan gertaturiko hainbat pasarte



LIBURUAREN AURRERAPENA

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna

Henry Wilkinson mediku ingelesak lehen karlistaldian Andoainen izandako borroketaz idatzi zuen, eta Londonen argitaratu eman. Jon Unanue argitalpenaren arduradunak *Wilkinson, Henry: Sketches of scenery in the Basques Provinces of Spain with a selection of national music* (London, 1838) eta *Apuntes paisajísticos y musicales de las provincias vascas* (Donostia, 1976. Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala) lanetatik atal oso bat eskaini dio Wilkinsoni.

Zirujau ingelesa, 1835ko uztailan iritsi zen Euskal Herrira Legio Britainiar Laguntzaileko zirujau gisa eta urte horretako irailetik aurrera Scotch Grenadiers izeneko 6. erregimentuan jardun zuen 1837ko martxora arte. Geroztik, buruzagitza nagusiko mediku izan zen. 1837ko ekainean Legio britainiarra desegin eta etorritako gehienak etxera bidali zituzten arren, milako pare batek kontratu berria sinatu zuen Espainiako gobernuarekin eta borrokan jarraitu zuten, horien artean Wilkinson. Bere kontakizunean azaltzen duen legez, Andoainera iritsi zirenean irailaren 8an, zauritu egin zuten eta Donostiara eraman sendatzera. Horregatik, guduaren egunean ez zen bertan, baina gertatutako guztia berri zehatza izan zuen. Hauxe lagin bat:

"Ez dut orain adieraziko zein izan zen O'Donnell jeneralak Andoain hartuta gotortu zuen kokapenaren xehetasuna, nahikoa baita adieraztea bere menpe hartutakoaren lerroak zirkuluerdi baten itxura zuela. Herrigunea kokapen horren erdian zegoen eta, beraz, etsaiengandik hurbi-

lago bi hegaletan baino. Oria ibaia fronte osoan zehar dator eta ibi ugari du oinez igaro ahal izateko. Eskuineko hegala mendien tontorreraino iristen zen eta bere kokagunea oso aldekoa zen, eremuaren beraren izaeragatik. Ezkerreko hegala zen eraso zitekeen bakarra, baina hor barrena soldaduek aurrera egitekotan sakan zail bat zeharkatu behar zuten, osorik ezponda batek inguratzen baitzuen, guztiz bere menpe hartuz.

(...) Hiruzpalau egun igaro ziren, eta egun horietan gure gizonek bizi-bizi jardun zuten lanean gotorguneak eraikiz irabazi genituen kokaguneak defendatu ahal izateko. Bosgarren egunean, etsaiak bere gizonetako batzuk bidali zituen ibai ertzean bertan kokatzera, eta haien eta gure arteko tartea asko txikitu zenez haien suak min egiten hasi zitzaigun, gurutako batzuk hil eta zaurituz oso denbora laburrean. Elder artilleriako tenienteari bala batez lehertu zioten aurpegia, behealdeko matrailezurra hainbat zatitan txikituz. Euren medikua kanpoan zen eta neronek ordeztu nuen. Hezurretik bala txirbilak erauzi, odol-jarioa eten eta burua loturaz bildu geniola, hara non azaldu zen artilleriako medikua eta bere jokabideak benetan gogaitu egin ninduen. Gure eztabaidaren gaia izan zen balarekin zer gertatu ote zen: nire ahalegin guztiak hura aurkitzeko alferrikakoak izan ziren, eta nire lankidearen ahalegina are traketsagoa gertatu zen. Gertatuagatik gelatik atera nintzen oso kezkatutik, eta etxeko atarian nengoan nire kide ziren ofizial batzuk iritsi zirenean eta txantxetan aritu zitzaizkidan artilleriako medikuarekin izan nuen liskarraren kontura. Elizaren aurrean zegoen pareta txiki batean eseri ziren eta liskarraz eman behar nien nire azalpena entzun zuten. Elder zauritu zuten terrazaren atzealdean geunden; bi etxeen artean tartea zegoen eta horretan zehar balak iristen ziren guregandik hurbil lurra harrotuz. Neroni ari nintzaian lagunei azaltzen Elderrek zer nolako zauria zuen, eta eztabaidan jartzen nuen indarraz buruari gora eta behera eragiten nion, eta horrela matrailezurra bere ohiko lekutik baino bi hazbete gorago neukan. Nire hatza kokots azpian jarri-

ta neukan, adierazteko bala nondik sartu zitzaion eta, hain zuzen ere esaten ari nintzaieanean *"Hara ba jaunak, balak hemen-txe jo zuen"*, errifle baten tiroak lepoan jo ninduen, juxtu masalezurraren oinarri azpian, ia-ia lepoan jarrita nuen hatza ukituz. Nire garunak oso larri jasan zuen eta lurra jo nuen minaren minez bihurrituz, hilzori bete izugarrian. Niregan lehenengo ustea izan zen nire arerioak, doktore jakintsuak, burutik behera mazokada eman zidala. Nire laguntzailea, Mr. Bain, bertan zen ofizial taldekoean artean; denek niganantz laguntzera jauzi egin eta etxera eraman ninduten. Ni salbatzea ia-ia probidentziala izan zen, ezen nire burua ohiko jarrean eduki banu, balak bete-betean joko baitzukeen nire beheko matrailzurra eta ondorioak askoz larriagoak ziratekeen. Gertatu bezala, bala lepoan barrena oso angelu egokiz sartu zitzaidan, zintzur-hestean barrena igaroz eta ezkerraldeko karotidaren gainean oso azalean leku hartuz. Zorioneko bizpahiru kontuk moteldu zuten balaren indarra: bizar oso sarriak eta zulatu eta zeharkatu zituen ehunen malgutasunak. Mr. Baine bala erauzi zuen eta bi ordu geroago zaldi gainera igo nintzen Donostiarantz joateko. Mina pixkanaka baretuz joan zen eta, zorionez, zauria sendatu bitartean berriro minik ez nuen izan.

(...) Atzerabidearen gure kontakizunera itzuliz: orain ihes egiteko ahaleginetan zebiltzanen helburua eskuin aldean zeuzkaten mendien gailurretara iristea zen, eta, horrela, Santa Barbararaino edo Hernaniraino atzera egitea.

Andoaindik pare bat miliatar zoritxarreko O'Donnell jeneralarekin egin zuen topo; egunsentian zazpi mila soldadu bere agindupean zituen gizona orain iheslari zebilen, oinez eta txano eta sablerik gabe. Ia-ia etsaiek bitan ehizatu zuten, baina gainera kentzea lortu zuen. Aha! lein betean zebilen ezponda lokaztu batean gora igo nahian muinoaren gailurrera iristeko eta gain egitea lortuta zuen soldadu espainiar bati eskatzen zion eskua eman ziezaion laguntzeko. Soldaduak bere ihesari jarraitu zion entzungor, jaramon zipitzik egin gabe bere jeneralari. Esan beharrik ez daukat Bain jaunak eta ondoan zuen eskoziar batek berehala eskaini ziotela laguntza eta euren sorbaldetan eutsiz jaso egin zuten ezpondaren ertzetik gora. O'Donnell jeneralak aurrerago soldadu eskoziarra ezagutu egin zuen

"EZ ZEN GERRA HONETAN HAU BEZAIN GUDUALDI GALGARRIRIK IZAN"

eta lau dolarreko txanpona oparitu zion.

(...) Robert Shields-en heriotzean gorabehera oso berezia izan zen. Andoain alderantz abiatzeko bezperan gaixorik zeudenen zerrendan zegoen, belaunean hazi zitzaion erlakizten batek jota; abiatzeko gure aginduak jaso genituenean, Donostiarantz alde egiteko agindu nion, zerbitzurako inolaz ere gauza ez zela iruditzen baitzitzaidan. Erregu egin zidan utz niezaion erregimentuarekin batera abiatzen eta goxa nezala, mesedez, Clarke koronela, hori ameti zezan. Koronelaren aginte-gunera joan nintzen eta kontua azaldu nion. Erne aditu zidan eta kontuarekin amaitu nuenean, zera esan: *"Doktore, bihar goizean kapitaina formazio barruan baldin bada, nire eginbehartzat joko dut zu atxilotzea"*. Shieldsen dendarra itzuli nintzen erantzun itsusi horrekin eta irmo agindu nion joan zedila Donostiara. Nire kontzientzia gai horri zegokionez berdindurik, egin kontu zer nolako ezustekoa izan nuen biharamunean erregimentuan Shields ikustean. Geroztik jakin nuen bere anaiak, maiorrak, biziki egin ziola erregu koronelari baimena eman ziezaion anaiari gudarostea bere bidaldian lagundu ahal izateko, eta, ageriko denez, lortu ere lortu zuela.

Ez ditut aipura ekarriko borrokaren izugarrikeria ikara-


garriak: esan besterik ez ofizial eta soldadu asko lurrean zeutza guztiz ahiturik, baina adimeneko ahalmen guztiekin, bertan akabatuko zituzten ehi-za zakurrak noiz iritsiko zain. Halaxe hil ziren Carnaby bizkor baina xelebrea, Dalrymple txeratsua, O'Brien gogor bezain alaia eta fusilari eta eskoziarren arteko beste soldadu asko. Harris kapitaina, zeinak ihes egin baitzuen, ihes egiteari utzi eta amore ematekotan egon zen, baina gazte ausart batek, Wilson koronelaren laguntzailea bera, eragotzi egin zion, eta besoan zauria zuen arren ihes egina-razten tematu zitzaion. Ofizial horrek esan zidan Carnaby eta Dalrympleren ondotik igaroa zela eta O'Brien hilurrenaren oihuak entzun zituela. Zein bihotz-urragarria izan zen haiengandik alde egiteaz egin zuen azalpena: *"Lagunidak Harris! Lagunidak edo ez diat lortuko!" "Eutsi, Carnaby, eta lortuko duk ihes egitea! Ezin diat lagundu; neroni ez nauk gauza ia mugitzeko ere!" "Orduan, egun handirarte, Harris! Hemen bertan egongo nauk heriotzaren zain!"*

"BIZIRIK ATERA ZIRENAK PENAZ ETA ATSEKABE SAKON BATEZ BETERIK UTZI ZITUEN GUDUAK"

Irudimena ikaratu egiten da gizon adoretu haiek bere hiltzaileak gainera etorri zitzaizkien arte igaro behar izan zituzten hilzoriko une izugarrien ikusizunaz. Berriz ikusiko ez zuten sutondoaren oroitzapena, berriro besarkatuko ez zituzten sendiko eta adiskideena, euren oroitzapenik kuttunenak senar edo maitale gisa... Hori guztia, minutu gutxiko une labur batzuetan, heriotza eman zien baionetaren zitzada baino sufrikario mingarriagoa izan bide zen.

Erregimentu eskoziarrean hil ziren ofizialak hauexek izan ziren: Clarke koronela, Shields maiorra eta kapitaina eta Townsend, Haslam, O'Brien eta Simms tenienteak. M'Kellar maiorra, esan dudanez, soldadu batek hil behar duen moduan erori zen, gizon borroka eginez guduaren erdian.

Ez zen gerra honetan hau bezain gudualdi galgarririk izan: bizirik atera zirenak penaz eta atsekabe sakon batez beterik utzi zituen. Nireari dagokionez garbi esan dezaket hainbat astetan nireak benetako amesgaiztoak izan zirela, heriotzaren irudi ezberdinek beterikoak, beti ere erarik izugarrienetan eragindakoa. Etsaiak gure lefroetan geneuzkan mutilik onenetakoak hiltzeko hautatu balitu bezala. Zein zorionekoa hiru egun aurretik balaz egin zidaten zauria!!!





Zatoz, idatzi edo deitu London School of languages akademiara. Informa zaitez. LSA

London School of languages akademiaren 25 urteko ibilbidea

Adin guztiei begira eskaintza prest dute akademian. Cambridge azterketetan emaitza oso onak lortu dituzte

London School of languages

Babestutako edukia

URNIETA

Eskarmentu handiko Hizkuntza-akademia da London School of languages akademia. Urnietan, gainera, ibilbide oparoa osatzen ari gara ingelesezko eta frantsezko irakaskuntzan.

Hastear da ikasturtea eta eskaintza zabaldu egin dugu. Aurrez aurreko eskolak emango ditugu, online bidez eta baita blended delakoa ere (saio bat aurrez aurre, eta asteen behin online bidez). Adibide oso gertukoa bizi izan dugu, berriki. Konfinamendu garaian online bidezko irakaskuntzarekin jarraitu genuen, eta hori ez zen irakaskuntza maila jaisteko arrazoia izan. Are gehiago, Cambridge azterketetan oso emaitza onak lortu dituzte gure ikasleek. Akademiarentzat guri egindako kanpo azterketa modukoa da. Garrantzitsua da gure norabidean jarraitzeko.

Adin guztiei begira

Hizkuntza berrian trebatzeko ez zaio adinari erreparratu behar. Haur, gazte eta heldu ikasteko gai izan daitezke. Guk herraminta ugari eskaintzen dizkiogu.

Hiru urtetik gorako ikasleekin hasten gara, eta gure akademiara gazte eta heldu ugari bertaratzen dira.

Horrez gain, kanpo zerbitzuak eskaintzen ditugu haurreskolatan, bizilagunen elkarteetan edota enpresetan.

Atzerrian ikastaroak antolatzen ditugu, ezagutzen sakontzeko haur eta helduentzat. Cambridge azterketetarako prestakuntza eskaintzen dugu, ere

Gure eskaintza zabalean ez da ahaztu behar irakasleen formakuntzarako gunea garela ere. Adibidez, Saturday Sessions, Young Learners online ikastaroa edota Cambridge CELTA delakoetan. Aukera zabala dugu Donostialdean eta Beterri-Buruntzan. Gure gertuko akademia, irakurle, Urnietan bertan duzu. Zatoz, idatzi edo deitu. Eta informa zaitez.

HARREMANETARAKO

London School of languages

- Helbidea: Zelai Alde plaza, 8. Urnieta.
- Telefonoa: 943 00 92 91.
- E-posta: londonschool@london-school.com.
- Webgunea: london-school.com.



Ekimen gehiago eskatu diote gobernu taldeari

Urnietako PSE-EE kezkatuta agertu da bolada txarra igarotzen ari diren herrikideekin

Erredakzioa URNIETA

Urnietako PSE-EE alderdiko buruzagi Herme Gonzalez urnietar asko pairatzen ari den egoerarekin kezkatuta agertu da. Ohar bidez zabaldutako adierazpenenetan dioenez, "badira bolada txarra igarotzen ari diren pertsonak eta kolektiboak. Eta horrexegatik, egoera hori aldatzeko, ausardia eta kementa eskatu nahi diogu Urnietako EAJ-PNVri. Udaletxetik gauza asko egin daiteke".

Besteak beste, enpresei, merkatariei eta ostalariei laguntzeko ekimen gehiago eskatu dio gobernu taldeari.

Bonoen kanpainen parte hartzeko deialdia

Erosketa bonoen kanpainen parte hartuko dutenen zerrenda osatu nahi du Urnietako Udalak

Erredakzioa URNIETA

Herri gehienetan egin bezala, Urnietan herri barruko erosketa sustatzeko kanpaina abiaraziko dute. Horretarako, ordea, Udalak behin betiko zerrenda osatu nahi du: "Kanpaina abian jarri aurretik ordea, parte hartzen duten establezimenduen zerrenda osatu behar da. Horretarako, herriko establezimenduek baja emateko edo kanpainara gehitzeko aukera izango dute irailaren 14tik 18ra". Merkatariek Bertan arreta bulegora edota Udaleko erregistro elektronikora jo behar dute.



Hainbat ospakizun egiteko baldintzarik ez da ematen, egungo egoeran. AIURRI

Ez ohiko egoera, Sanmielak bertan behera utzi ondoren

Irailekoa ekitaldiz beteriko hilabetea izan ohi da Urnietan. Koronabirusak gizarte bizitza eraldatu du

Erredakzioa URNIETA

UKE taldearen aurkezpen ekitaldia, Etxeberriko jaiak, Sanmielen atariko kultur asteburua... iraila ekitaldiz beterikoa izaten da Urnietan. Koronabirusak, ordea, goitik behera aldarazi du gizarte bizitza. Prebentzio neurriak areagotu egin behar dira, gainera, azken asteetan PCR bidezko positiboen kopuruak goruntz egin duelako eskualdean.

Aurreko astean Udalak argitarata eman zuen oharra ez zen ezustean erori, azken hilabeteetako ospakizun gehienak han eta hemen bertan behera geratu direla ikusita. Pandemiak herri bazkariak, txosnagunea eta gaueko emanaldiak antolatzea ezinezko bilakatu du. Aurretik inoiz ezagutu gabeko egoera biziko dute, beraz, urnietarrek: herriko jairik gabeko egunak bizitzea. Salbuespenezko egoera

izan dadila, 2021ean ospatzeko aukera egongo den itxaropenarekin.

Aurreko astean Udalaren oharra zabaldu zen, eta baita Jai Batzordearena ere. Honako pasarteak agertzen da, ohar horretan: "Urnietarrentzat Sanmielak une garrantzitsuak izan ohi dira kalean elkartzeko, herriko elkarteetako ekitaldietan parte hartu eta kulturaz gozatzeko, baina aurturatsatze arriskuaren ondorioz gure desio asko ezingo ditugu gauzatu eta ohitura batzuk aldatu beharko ditugu. Jaiei hutsunea nabaritu dugu, baina gure arteko harremanei, herri nortasunari eta kulturaren garapenari bide ematen jarraitu nahi dugu".

"Hurrengo urtera arte Miela!!!" adieraziz amaitzen zen oharra. Ez ohiko egoeran, ez ohiko neurriak hartu behar izan dira.



Urnietako
udala



Erantzukizunez jokatzeko deia luzatu du Urnietako Udalak. AIURRI

Positiboen kopuruarekin kezka agertu du Urnietako Udalak

"Kontuz eta tentuz jarraitu behar dugu, erantzukizunez jokatzeko, birusa herrian dagoelako"

Erredakzioa URNIETA

"Urnietan eman den Covid-19 positibo kasuen gorakadaren aurrean, Urnietako Udalak kezka adierazten du. Izan ere, azken asteetan 30 kutsatze kasu berri baino gehiago eman dira. Eta atzo Osasun Sailak emandako datuen arabera 63 kasu izan dira herrian hilabete hauetan guztietan". Urnietako Udalak, ohar bidez, egoerarekin kezka agertu du. Igoera orokorra izaten ari da, herri guztietan. Egoera larriagoa izan ez dadin, herritarrei prebentzio neurrietan sakontzeko eskatu diete: "Kontuz eta tentuz ibiltzen jarraitu behar dugu, erantzukizunez jokatzeko, birusa herrian dagoelako eta gehiago zabaltzea ekiditeko babes eta prebentzio neurriak zorrotz betetzea ezinbestekoa delako".

Positiboak bai, agerraldirik ez

Positibo eman duten pertsona horien artean ez dagoela loturarik adierazi du Udalak. Beraz, ez dirudi "brote" edo agerraldirik dagoen: "Pertsona horiek berrogeialdian daude etxean eta beraiekin harreman zuzena izan dutenak ere bai, prebentzio neu-

rra gisa emaitzak ezagutu arte. Izan gaitezen arduratsu, guztion osasuna dago jokoan".

Sintomarik izanez gero, urnietarrek herriko osasun-zentrorara deitu behar dute: 943 00 66 80.

Abuztuan 22 kasu, irailean dagoeneko 23

Abuztuaren erdialdera Gipuzkoan eta Euskadin igoera nabarmena eman zen. Urnietan bertan, abuztuan 22 kasu positibo antzeman ziren egindako PCR proba ezberdinetan. Iraila ildo beretik doa, gorunzko joeran.

Eguna	Positiboak
Irailak 1.	3
Irailak 2.	0
Irailak 3.	5
Irailak 4.	5
Irailak 5.	1
Irailak 6.	0
Irailak 7.	0
Irailak 8.	2
Irailak 9.	0
Irailak 10.	0
Irailak 11.	1
Irailak 12.	1
Irailak 13.	2
Irailak 14.	1
Irailak 15.	2



Bertso eskolako kideak. AIURRI

Bertso eskolan izena emateko epea zabalik dago

Bertso eskolak partaide berriak batzeko deialdia luzatu du. Epea irailaren 30ean amaituko da

Erredakzioa ANDOAIN

Urnietako bertso eskolan 2020-2021. ikasturtea antolatzen hasi dira. Deialdia Urnietako bertso-zaleei zuzendu diete, eta adin guztietako herritarrek eman dezakete izena. Aurrez-aurreko bertso eskola saioei urriko lehen astean emango zaie hasiera. Egungo egoera kontutan izanik segurtasun neurri guztiak bermatuta egongo direla ziurtatu dute.

Izena emateko bi modu daude. Alde batetik interesatuak email bidez jar daiteke harremanetan, eskolako kideekin. Emaila honakoa da: urnietakobe@gmail.com. Telefono zerbakia ere eskuragarri ipini dute, honakoa: 634 475 232.

Datozen egunetan, izena ematen duten pertsonekin Urnietako Bertso Eskolako arduraduna jarriko da harremanetan. Taldeak eta ordutegiak partaidetzaren arabera zehaztuko dira.



Irteera asteburu honetan izango da. GIPUZKOAKOPARKETXESAREA

Mulisko gainara irteera Parketxe sarearen eskutik

Multzo megalitiko bisitatzeko aukera dago larunbat honetan, Besabitik abiatuta. Irteera 10:00etan da

Erredakzioa URNIETA

Urnietarrentzat aski ezaguna den txokoa da, baina beti da interesgarria ezaguna zaigun txokoaren bisitaldia informazio osagarriarekin egitea. Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak larunbat honetarako goiz-pasa polita antolatu du. Abiapuntua Besabin izango da, 10:00etan. Eta toki berera iritsiko dira, 14:00ak aldera. Jarduerak 5 euroko prezioa du eta izena ematea ezinbestekoa izango da.

Parketxeak berak oso modu erakargarrian egin du eskaintza: "Gutxi dira Gipuzkoan Mulisko gaina bezain toki kitzikagarriagoak. Lehenik eta behin, kokapenarengatik eta handik dagoen ikusmirarengatik; izan ere, besteak beste, behinola Urumeako Zilegimendiak izan zirenen zati handia bertatik bertara ikusten da handik, gertu-gertu, esku-

eskura. Hango mendiak, basoak, larretokiak, errekak... a zer nolako ikuskizuna!

Bigarrenik, Mulisko gainan dagoen multzo megalitikoarengatik: zutarri bikaina, zista bikoitz paregabea, hiru cromlech, zein baino zein dotoreagoak... Leku gutxitan horrelako arkeologia ondarea hain eremu txikian.

Haraino iristeko bidea ere ez da hutsala. Paisaia zoragarriaz gainera, itsasoa eta Beterriko zati handia ikusten da.

Bide erraza eta egokia

Mulisko gainara iristeko bidea erraza eta egokia da, edonork egiteko modukoa. Alde horretatik ez dago aitzakiarik".

Informazio gehiago:

- 943 49 50 69 / 688 89 50 68
- arditurri@gipuzkoanatura.eus
- www.gipuzkoanatura.eus

Extremadurako produktuak erosteko aukera, igandean

San Juan plazan postua ipiniko dute igande honetan goizeko 11:00tan hasi eta eguerdiko 13:30ak arte

Erredakzioa URNIETA

Extremadurako gastronomia eta folklorea Urnietara ekarri ohi du, urtean behin, Donostiako Centro Extremeño elkarteak. Hitzordu hori, urteen poderioz, Sanmielen inguruko ekitaldietako bat bilakatu zen.

Pandemia garaian izanik, aurrez ez da floklora erakustaldirik izango. Aldiz, produktuen salmentarako postua ipiniko dute la iragarri du Urnietako Udalak. San Juan plazan postua ipiniko dute goizeko 11:00tan hasi eta eguerdiko 13:30ak arte.



FRANTZIAKO TOURRA AIURRI.EUS





Barrenetxea eta Urriza erremontistak. UTS

Urriza finalera, eta Barrenetxea iazko txapeladuna finaletik kanpo

Ligaxkako hirugarren garaipena eskuratuta, irailaren 26ko finala jokatuko du Urrizak

Mikel Arberas HERNANI

Javier Urrizak hirugarren garaipena eskuratu zuen Kutxabank Txapelketako finalerdietako ligaxkan (24-30). Partida irabazita, aurrelari iruindarrak ligaxkako garaipen guztiak eskuratu ditu. 12 punturekin finalera zuzenean igaro da. Finalerako bigarren txartela Juaneneak eta Endikak jokatuko dute datorren larunbatean, ligaxkako bigarren eta hirugarren postuak ziurtatu ondoren. Barrenetxeak lehen puntua eskuratu du, baina txapelketatik kanpo geratu da.

Galdu arren, atzelari hernaniarrak hobeto jokatu zuen eta aurreko bi partidatan baino itxura hobea eman zuen. Aurreko bi partidatan bezala, sakeak huts egin zion.

Partida polita izan zen, erritmo eta joko onekoa. Partida parekatuta hasi zen, baina segituan Urrizak bost tantoko

aldea lortu zuen (7-12). 2019ko txapelaren defendatzaileak ez zuen etsi eta markagailuari buelta ematea lortu zuen, tanto bakar batera gerturatu zen (18-19).

Nabarmendu beharra dago, hankean pilotakada gogor bat jaso zuela eta, beraz, partidaren amaieran hainbat puntu jaso behar izan zituela; hala ere, hernaniarrak jokatzen jarraitu zuen, balentria izugarria erakutsiz.

Gertakariaren ostean partidak aurrera egin zuen eta Urrizak aldea zabaldu zuen markagailuan (20-25). Abantaila amaierara arte mantendu zuen. 24-28koaren ondoren Urrizak partidako azken bi tantoak egin zituen. Irabazleak 23 tanto egin zituen pilotuean, lau sakez, sake falta bat eta huts bat. Barrenetxeak 18 tanto egin zituen pilotuean, lau sakez eta hiru akats egin zituen.



Kirol instalakuntzak. AIURRI

Ikastaroak Urrietako kirol instalakuntzatan

Izena emateko epea irailaren amaieran zabalduko dueka iragarri du Urrietako Udalak

Erredakzioa URNIETA

Udalak laster jakinaraziko du ikasturte berrirako kirol eskaintza zein izango den. Beti ere, Koronabirusaren ondorioz ezarritako protokoloa ezarri behar da. Astelehenean hasita, ordutegi berriak ezarri dira kirol instalakuntzen erabilera. Astelehenean ostiralera zabalik izango dira 08:30etik 22:00etara. Larunbatean 09:00etik 21:00era eta igande eta jai-egunetan 09:00etik 14:00ora.

Muskulazio gelan, kardio gelan edo atletismoko pistan kirola egin nahi duten pertsonak kiroldegira telefonoz deitu behar du dute, hitzordua hartzeko: 943 00 83 28.



Ikasturte berriaren aurkezpen ekitaldia. AIURRI

Allurraldeko ikastaroetan izena emateko deialdia zabaldu dute

Irailaren 20ra bitarte izena emateko aukera dago. Protokolo zorrotza jarraituko da, kasu guztietan

Xabier Lasa ANDOAINI

Ezer baino lehen, deialdia egin dutenerako Allurraldek oso kontutan hartu du bizi dugun osasun alarma egoera. Oscar Mendo zinegotziak oso argi utzi zuen hori, deitu zuten prentsa agerraldian: "Helduen eta adingabeen segurtasun neurriak mantentzeko, neurri espezifikoak hartu dira kasu bakoitzerako, eta garbiketa eta desinfekzio jarraibideak indartu dira". Egoerak baldintzatuta, hainbat gauza aldatuko dira "baina gure ustez, prebentzioeko segurtasun eta osasun arauak eutsiz, kirol instalazioek normaltasunez funtzionatzen jarrai dezakete".

Spining, Yoga, Zumba, Aerobic, Balance edota Cross training ikastaroen kasuan astean bitan eskainiko da, eta lehen egunetan matrikulazio kopurua aurreikusitakoa baino hobea izan da. Bestelakoa izaten ari da igeri-

keta eta aquagym ikastaroen egokitzapena. Instalakuntzak eta segurtasun neurriak hartuta eskaintza berregokitu egin behar izan dute.

Igeriketa ikastaroak haurrentzat

Lau urtetik aurrera eskainiko dira, eta beti ere astean behin. Aldaketa nabarmena iragarri zuen Mendo zinegotziak: "Haurrak begiralearen laguntzarekin sartuko dira aldageletara, eta haiek arduratuko dira, behar duten neurrian, aldatzen, duxatzen eta ilea lehortzen laguntzeaz. Helduetan, plazak sexuen arabera bereiziko dira, aldagelak antolatuta daudelako".

Ikastaroetan izena emateko asmoa duenak kirola.andoain.eus gunean aurkituko ditu xehetasun guztiak. Izen-ematea allurralde@andoain.eus e-postara idatziz egin behar da.

BURUZ BURUKO ERREMONTETXAPELKETA KUTXABANK SARI NAGUSIA 2020

FINALAURREA, IRAILAREN 19-AN

1. PARTIDA / 16:00-etan

MIRUBIA
AIZPURI III

VS

SEGUROLA
ZUBIRI

17:00-etan

JURIÑENA

VS

ENDIKA

3. PARTIDA / 18:00-etan

ANSA II
BARRENETXEA IV

VS

URRIZA
LARRAÑAGA

Pelotadenda.com

PAPELERA GUIPUZCOANA
DE ZICUAGA, S.A.U.

kutxabank

sukia

Orona
Fundazioa

ORIA
MENDI

HITZORDUAK

UDAN ZEHAR EKITALDIAK AIURRI.ESU GUNEAN ZABALDUKO DIRA. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 17

ANDOAIN Deialdia

Kultur elkarteei diruz laguntzeko deialdia luzatu du Andoaingo Udalak. Eskaerak Basteroko harreraren edo herritarren arretarako Ataria bulegoan aurkeztu behar dira. Aldez aurretiko hitzordua derrigorrezkoa izango da, aurrez aurreko kontsultei dagokionez. Telefonoz edota andoain.eus webgunean sartuta aurki daitezke argibide guztiak.

Epea: Irailak 30.

ANDOAIN Deialdia

Berdintasun Sailak azaroaren 25a antolatuko deialdia luzatu du, herritarren artean. Eguneko hitzordua nagusia herritarrekin batera antolatu nahiko luketela adierazi dute.

18:00 Urigain.

OSTIRALA 18

URNIETA Odol-emaileak

Odol emaileen saio berria. Azken aldi honetan bezalaxe, odol-emaileek aldez aurretik izena eman beharko dute.

18:30-20:30 Lekaio.

ANDOAIN Dokumentalak

Josefina Lamberto protagonista duen "Florecica" dokumentala eskainiko dute. Eta torturaren inguruko bestea, "25:37:16" izeneko laburmetraia. Segurtasun neurriak beteko dira. Musukoa derrigorrezkoa izango da.

20:00 Gaztetxea.

ANDOAIN Kontzertua

Anari eta bere taldea zuzenean. Sarrera doakoa, gonbidapenarekin. Azken lana aurkezten ariko dira.

22:00 Ondarreta.

URNIETA Deialdia

Udalak dirulaguntza emango die pasa den ikasturtean euskara ikasketetan murgilduta izan ziren herritarrei. Diruz lagun daitezkeen euskara ikastaroak ondorengoak dira: HABEK homologatutako ikastaroak; modulazio desberdinekoak, barnetegiak eta autoikaskuntza. Informazio osoa eskuragarri dago Urnieta.eus webgunean.

Epea: Irailak 18.



Anari taldekideak lagunduta ariko da Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian. AIURRI

ANDOAIN Anariren kontzertua

Andoaingo Udalak, Kale Giroan zikloaren baitan, Anari kantari ezagunaren emanaldia antolatu du. Mikel Abrego eta Xabier Olazabal "Drake" eskarmentu handiko musikariak zuzenean ikusteko aukera izango da, bide batez.

Irailak 18, ostirala. 22:00, Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalia.

IGANDEA 20

ANDOAIN Haur ikuskizuna

"Babo Royal" haur ikuskizuna, Ganso & Cia konpainiarekin. Dohainik, gonbidapenarekin.

18:30 Ondarreta.

ASTELEHENA 21

ANDOAIN Jabekuntza Eskola

"Nola erabili teknologia berriak gure telefonoan". Ikastaroa doakoa da. Informazio osoa Urigainen.

17:30-19:30. Irailak 21, 23, 28, 30.

ASTEARTEA 22

ANDOAIN Film emanaldia

"Remember me". Gizarte Zerbitzuak sailak antolatuta. Alzheimerren munduko egunaren harira.

18:00 Bastero. Gonbidapenarekin.

OSTEGUNA 24

ANDOAIN Jabekuntza Eskola

Sendabelarren gaineko ikastaro aurreratua, Kris Lizarragaren eskutik. Iazko edizioan parte hartu zutenentzat egokia. Informazio osoa Urigainen. Bi talde antolatuko dituzte, irailean eta urrian zehar ikasteko. Talde bat asteartearekin elkartuko da, eta bestea ostegunarekin.

18:00-20:00. Irailaren 24tik aurrera.

ASTEARTEA 29

ANDOAIN Hitzaldia

"Nola aurreikusi eta tratatu daiteke Alzheimerren gaixotasuna". Gurutz Linazasoro doktorea hizlari ariko da, Gizarte Zerbitzuak sailak antolatuta. Alzheimerren munduko egunaren harira.

18:00 Bastero. Gonbidapenarekin.



Egape dantza taldea. AIURRI

"Almanaka" dantza ikuskizuna, ostiral honetan

Egape dantza taldea ikuskizun berria lantzen ari da. Lagin bat erakutsiko dute jendaurrean

Erredakzioa ANDOAIN

"Almanaka" izena du Egapekoen ikuskizun berrienak, eta lagin modukoa ikusteko aukera izango da ostiral honetan San Juan plazan. Dantza taldeak oharra zabaldu dute: "Ikuskizuna sortze prozesuan dago eta horixe partekatu nahi dugu publikoarekin; baita Urnietan dantza bizirik jarraitzen duela aldarrikatu ere". San Juan plazan izango da, eta euria eginez gero frontoian.

Edukiera mugatua izago da, eta Koronabirusak eraginda beharrezko babes eta segurtasun neurriak hartuko dira.

Irailak 18, ostirala

18:00 Gonbidapenak eskuragarri Sarobeko txarteldegian. Pertsonako bina sarrera.

19:30 Agertokira sarbidea.

20:00 Ikuskizunaren hasiera.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 19 eta igandea 20 MONFORT: Aita Larramendi, 26. 943 300 913. Andoain.

URNIETA

Larunbata 19 eta igandea 20 AGUADO-MARCO: Nagusia, 21. 943 550 327. Astigarraga.

Zure bizitza **EUSKARAZI!**

Matrikula irekita irailaren 18ra arte

Euskaltegira etortzeko denbora arazoak dituzu?
Lasai, astean 2 eguneko modulua ere badugu!
Bestelakoak ere bai: 4 egun eta autoikaskuntza.

Bulegoko ordutegia:
09:30 - 13:30 / 16:30 - 19:30

Dirulaguntza handiak!
Etorri galdetzeraz!

Karobieta 63, Hernani
Tel. 943 331 896 688 826 539
euskaltegi@hernani.eus

20/21
ikasturtea

HERNANIKO
Udal Euskaltegia



Izaro kantaria Basteron arituko da, udazkenean. IZARO

Izaroren eta Oreka TXren saioak iragarri dituzte Basteron

Udazkeneko programazioarekin batera, Kulturgunea berrabiarazteko asmoa agertu du Udalak

Erredakzioa ANDOAIN

Martxoaz geroztik Bastero Kulturgunea itxita izan da, eta sei hilabeteren ostean Itxaso Mendiluzeren erakusketarekin hasi da berrabiaraztea. Koronabirusaren eraginez, Andoaingo kultur jardueren erreferentzia nagusia itxita izan da. Udalak bere asmoa agertu du, egunotan: "Helburua Kultura jarduera eta zerbitzuak berriro ere martxan jartzea da, eta espazio eta gune desberdinak herritarren eskura jartzea, beti ere segurtasun neurriak mantenduz. Programazioari dagokionez izen handiak aipatu dituzte. Besteak beste Oreka TX, Golden Apple Quartet edota Izaro kantaria. Musikak bezalaxe, dantzak eta antzerkiak ere tarte izango du udazkeneko programazioan.

Sarreraren salmenta urriaren 10ean abiatuko da, eta Basterotik telematikoki egiteko gomendioa luzatu dute: antzerkia,

zinea, musika eta dantza ikus-kizunetako sarrerak modu elektronikoan erostea gomendatzen da www.bastero.eus webgunean eta erosketaren agiria telefono mugikorrean bertan ekartzea.

Liburutegia-fonoteka

Udal-liburutegia martxan izango da, "baina mailegu zerbitzua hitzordu bidez izango da. Jendaurreko ordutegia betikoa izango da. Hala ere, hurbildu aurretik mailegu eskaera egiteko deia luzatu dute. Erreferentziak honako webgunean ikusgai daude: www.liburubila.euskadi.eus. Liburuzainak jarriko dira irakurlearekin harremanetan eskatutakoa noiz jasoko duten zehazteko. Liburutegiko telefono zenbakiak honakoak dira: 943 300 615 / 606 275 862.

Fonotekak itxita jarraituko du. Bertako erreferentziak liburutegian eskatu behar dira.



Oreka TX taldeak emanaldia eskainiko du Andoain. OREKATX

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

"Que suene la música"

Larunbata, 19.
19:30, 22:15.
Igandea, 20.
19:30.

Astelehena, 21.
19:30, 22:15.

"Remember me"

Asteartea, 22.
18:00.

Gonbidapenarekin,
Alzheimerren
munduko egunarekin
bat eginez.



SINOPSIS



"Que suene la música" (Military Wives)

Zuzendaria: Peter Cattaneo. **Gidoia:** Rosanne Flynn, Rachel Tunnard. **Aktoreak:** Kristin Scott Thomas, Sharon Horgan, Amy James-Kelly, Robert Whitelock... **Herrialdea:** Britainia Handia (2019). **Generoa:** Drama, komedia. **Iraupena:** 110 min.

Kantatzen ez duenak zorionik ez du

Base militar batean, soldaduen emazteek abesbatza osatzea erabaki dute. Ekimen horri esker lotura sendoa sortuko da euren

artean. Abesbatzak, gainera, Afganistanen egonaldia sor diezaiekeen beldurra arintzeko baliagarria izango da.

SINOPSIS



"Remember me"

Zuzendaria: Martin Rosete. **Musika:** Pascal Gaigne. **Aktoreak:** Bruce Dern, Caroline Silhol, Sienna Guillory, Brian Cox, Veronica Forque... **Herrialdea:** AEB, Frantzia eta Espainia (2019). **Generoa:** Drama, komedia. **Iraupena:** 88 min.

Alzheimerra hizpide

Gazte garaiko maitalea Alzheimerrak jota dagoela jakiten duenean, alargun geratutako protagonistak saiakera bizia egingo du

adinekoen egoitzan sartzeko. Bertan bere bizitzako maitalearekin topo egitea desio du. Bruce Dern protagonistaren lana goraiatu zuten.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Zorionak bikote!

Urte latza aurtengoa, baina azkenean dena ondo joan da: aitonaren 80 urte borobilak eta Maddiren 10 urteak. Zorionak bikote eta jarraitu bata bestea zaintzen. Etxekoan partez.



URNIETA


Zorionak Jokin!

Irailaren 19an zortzi urte beteko dituzu! Ondo pasa eguna etxeko guzitekin.

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Aiurri bidez.

Erraza da, eta dohainik!

- Webgunea: www.aiurri.eus.
- Emaila: diseinua@aiurri.eus.
- Whatsapp: 619 163 537.



Odol ematea Urnietan

Irailak 18, ostirala

Odol emaleen saio berria. Aldez aurretik izena eman beharra dago. Segurtasun neurriak bermatzeko, txandak banatuko dira odola ematera gerturatzen diren pertsonen artean jende pilaketak ekiditeko. 18:30-20:30 Lekaio.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Udaltzaingoa: 943 300 819.
Osasun zentroa: 943 006 670.



2016ko irailaren 25ean egin zuten lehen ibilbide gidatua, Manuel Larramendi eta Agustin Leitza ardatz hartuta. AIURRI

Guduari buruzko ibilbide gidatua, igande honetan

Bosgarren urtez jarraian Ondarearen Europako Jardunaldia antolatuko da eskualdean. Igande honetan Andoaingo guduari loturiko ibilbide gidatua egingo dute. Eta urriaren 15ean Garmendia saskigileari buruzko hitzaldia eskainiko dute Urnietan

Erredakzioa ANDOAIN

Udalak, Foru Aldundiak eta Larramendi Bazkunak antolatuta, igande honetan Andoaingo guduari buruzko ibilbidea egingo da. Ibilbide hori Ondarearen Europako Jardunaldien barruan antolatu da eta, aurreko urteetan egin bezala, euskaraz egin ahal izango da eta baita gaztelaz ere. Taldeak mugatuak izango

dira: bi taldek euskaraz egingo dute eta talde bakoitzean, gehieze ere, 8 lagun izango dira. Gaztelazko taldean, berriz, 9 lagunek eman ahal izango dute izena. 10:00tan emango zaio hasiera ibilbideari, eta, gutxi-gorabehera, bi ordukoa izango da. Izena emateko telefonoz deitu behar da: 943 30 35 40 (Bastero Kulturunea).

Bosgarren edizioa

- 2016** Manuel Larramendi eta Agustin Leitza.
- 2017** Herriko ondare historikoa.
- 2018** Emakumeak kale izendegian.
- 2019** Erraldioen konpartsa.
- 2020** Andoaingo Gudua.

Urriaren 15ean Urnietan

Antonio Garmendia saskigilea oroitu du Luis Mari Zalduak.

Ondarearen jardunaldiak, urtez urte



2019 | Erraldoi eta Buruhandien konpartsa. AIURRI



2018 | Emakumeak eta kale izendegia. AIURRI



2017 | Andoaingo gune historiko nagusiak. AIURRI

Andoaingo guduaren gertaera azalduko duen bisita gidatua

Irailak 20, igandea
10:00

Talde mugatuak: euskaraz eta gaztelaniaz

Izena emateko: 943 30 35 40 | basteroataria@andoain.eus

2020KO GIPUZKOAKO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK



